



## BRONKIOLITISA BRONQUIOLITIS

Zure seme-alabak orain dauzkan sintomak direla-eta, hauxe da diagnostikoa: **BRONKIOLITISA**.

### ZER DA?

Lehenengo arnas infekzioa da, 2 urtetik beherako umeen artean: bronkio txikien inflamazioa gertatzen da (bronkioloak). Normalean birus bat izaten da eragilea.

### NOLA IGARRI?

Umeak katarro-koadro arrunta dauka, febríkula edo sukarrarekin, sudurreko mukiekin eta eztularekin. Hurrengo 24-48 orduetan, apurka-apurka, **arnasa hartzeko zailtasuna** nabarmenduko zaio: arnasketa azkarragoa, nekea hartualdietan, txistua arnasa hartzean, uzkurdurak saihetsetan (arnasa hartzerakoan saihetsezurrak nabaritzen zaizkio, bularra hondoratzen zaio...).

### ZER EGIN?

Pediatrarenera eraman umea. Berak aztertuko du koadroak daukan larritasuna. Kasu arinek hobera egiten dute 10 egunetan; kasu hauetan, hauxe egin behar da:

- Sudur-jarioak aspiratu behar dira, batez ere hartualdiak baino lehen.
- Likidoak sarritan eman behar dira. Hartzean nekea igartzen bazaio, hartualdiak zatitu egin beharko dira.
- Sukarrik badago, tratatu egin behar da, umea erosoago egon dadin.
- Lotarakoan, altxatu apur bat sehaska-burua.
- Tabakoaren kea ekidin behar da
- Eskuak ondo garbitu behar dira, umea hartu baino lehen eta ondoren

Batzuetan, pediatrak, inhalatutako medikamentu bat aginduko dizu bronkioa "zabaltzeko"; medikamentua ematerakoan, jasotako jarraibideak bete beharko dituzu. Ez da antibiotikorik erabiltzen tratatzeko, konplikazioak sortzen direnean baino ez direlako egokiak.

### ZERTAN JARRI ARRETA:

- Sukar handia (aurretik ez zeukana).
- Umearen aktibitatea nabarmenki murriztea, motel egotea.
- Segundo batzuetako arnas etenaldiak edukitzea umeak.
- Ez du jan nahi (hartu ohi duenaren erdia baino gutxiago hartzen du).
- Ezpainak edo larruzala ubelduta dauzka.
- Arreta berezia jarri behar da umeak berez honelako arrisku-faktorerik badauka: bihotzeko gaixotasunak, biriketakoak, goiztiarra izatea,...

Horrelakorik antzematen badiozu umeari, jo ezazu pediatrarenera edo hurbilen daukazun larrialdietako zerbitzura. Horrelako gertakizun errepikakorrek ohikoak izan daitezke zenbait umeren kasuan, lehen bi urteetan. Zure seme-alabak bronkiolitisa eduki badu, batez ere ospitaleko tratamendua eman badiote, erne ibili beti arnasa hartzeko zailtasunaren inguruko ezaugarriekin, katarro-koadroa daukanean.

Su hijo ha sido diagnosticado de **BRONQUIOLITIS** por los síntomas que presenta en el momento actual.

### ¿QUE ES?

Es la primera infección respiratoria aguda en un niño menor de 2 años, en la que existe una inflamación de los bronquios pequeños (bronquiolos). Generalmente está causada por virus.

### ¿COMO RECONOCERLA?

El niño presenta un cuadro catarral común con febrícula o fiebre, mucosidad nasal y tos. Progresivamente en las siguientes 24-48 h inicia signos de **dificultad respiratoria**: respiración más rápida, fatiga con las tomas, pitido al respirar, retracciones costales (se le notan las costillas al respirar, se le hunde el pecho..).

### ¿QUE HACER?

Lleve a su hijo al pediatra. El valorará la gravedad del cuadro. Los casos leves suelen evolucionar en 10 días a la mejoría, requiriendo únicamente:

- aspirar secreciones nasales, sobre todo antes de las tomas.
- dar líquidos frecuentes, fraccionando sus tomas habituales si se le nota fatiga al comer.
- tratar la fiebre si existe para que el niño esté mas cómodo.
- a la hora de dormir incorpore un poco la cabecera de la cuna.
- evitar la exposición al humo de tabaco.
- lavarse las manos antes y después de coger al niño.

En determinadas ocasiones se le indicará un medicamento inhalado que usted debe administrar según las instrucciones que se le den.

No se trata con antibióticos. Estos sólo están indicados en caso de complicaciones.

### ¿QUE VIGILAR?

- Fiebre elevada que antes no tenía.
- Disminución llamativa de su actividad, está apagado.
- Episodios en los que deje de respirar unos segundos.
- Rechazo de la alimentación (toma menos de la mitad de lo que hace habitualmente).
- Color amoratado de los labios o de la piel.
- Especial precaución si su hijo tiene factores de riesgo asociados como enfermedades del corazón, del pulmón, prematuros...

Si usted detecta alguno de estos signos acuda a su pediatra o al servicio de urgencias más cercano. Una proporción significativa de niños pueden presentar episodios repetidos de similares características durante los dos primeros años de vida. Si su hijo ha tenido una bronquiolititis, sobre todo si ha precisado tratamiento hospitalario, vigile usted siempre los signos de dificultad respiratoria cuando tenga un cuadro catarral